

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Anaien artekoa



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Neronek tirako nizkin


SEBASTIAN SALABERRIA

Auspoa, 1961

Hizki baten garrantzia: hatxea erantsi dio Auspoa argitaletxeak bilduma berriari, Hauspoa. Hizki baten garrantzia: mutua izan arren, eta batuaren sorrera garaiak horren lekuko, zenbat esaten duen, zenbat gorde-tzen bere baitan. Baten batek esango du berandu, baina ongi etorria egiteko modukoa da ekimena: Auspoa zaharreko alerik esanguratsuenak berri, euskara estandarrean jarriko ditu bilduma honek. Estreinakoa, klasiko bat, *Neronek tirako nizkin*, Sebastian Salaberriarena. Autobiografikoa, haur-gazte denboretako berri eman ondoren, gerrako ibilerak kontatzen dituena. Oker ez gadaude, Hegoaldean euskaraz publikatu zen 1936-39ko gerraren aurreneko lekukotza.

Emailuak laburtzen digu: anaia “bestek esanda” Bilbora alde egina, abertzaleekin. Sebastian Donostian geratu, gerra berehala bukatu eta libratuko zelakoan. Kukuak oker jo: frankotarrekin frentera. Hain zuzen ere, horixe da narrazioak nabarmentzen duen gatazka: “Beti kezka horrekin ibili nintzen gerra-denbora guztian: ea nire anaia hori nonbait aurkitzen ote nuen hilda, erituta edo prisionero eginda”. Ondo azaltzen du Anjel Lertxundik, edizio batuaren hitzaurrean: “Soldadu berriak ez du bere eginkizunaren zentzu historikorik, bere jardunaren epikotasunik, sentimendu aberkoi berezirik”. Anaien artekoa da gerra, beraz –beti anaien, auskalo non sartzen ziren ahizpa-arrebak–: gerra eremu familiarrera ekarrita, karga politikorik gabe, erabat deskontestualizata, errebisionismoak egiten duen irakurketarekin lerratuko litzateke kontakizuna. Ez, egia da, eta eskerrak, bereziki banderizo,

ez etsaiak sobera itsututa: “Jeneral agintari hura, gizon ospetsua izan arren, soldaduen mendean baitzegoen. Gauza penagarria benetan!”. Esan dezagun besteren gainetik maite duela ordena. Eta, ordurako euskal nobelagintzak egina zuen arren urratsik modernitatera –Etxaideren saio historikoak, Loidiren nobela beltz ospetsua, *Txillardegiren lan existentzialak*–, lehena izateagatik pasa dela nabarmen historiaren paperetara. Lertxundik, berriz: liburua irakurri zuen lehen aldia etxeko euskararekin egin zuen topo. Lehendabiziko aldiz: “Ez nuen etxeko berorik topatzen ordu a arte euskaraz irakurrita neuzkan liburuetan: batzuk garbi-zaletasunez zipriztinduak, eta beste batzuk, berriz, garo-usainak markatuak, urrutikoak egiten zitzaizkidan edo idealizatuak, lehorrak, kasik arrotzak”. Horixe omen liburua- bertuterik handiena: “Ahozkotasanaren jarjaria ematen jakin izana. Liburua altxor txiki bat da ahozko baliabideak idatzizko tes- tu batean nola txerta litezkeen aztertu, ikasi eta imitatu nahi duenarentzat”. Horrekin geratuko gara ba. Eta Hauspoaren emaitza berrien zain. ■



Sebastian Salaberria idazle oiartzuarra (Oiartzun, 1915 - Hernani, 2003).